

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Behin betiko onestea hiri lurren Balioaren gaineko Zerga (HLBGZ) arautzen duen zerga-ordenantzaren egokitzapena, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretura egokitzeko

Iruña Okako Udaltzarak, 2023ko maiatzaren 10ean egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion ondoko zerga-ordenantza honen aldaketari:

Hiri lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantza, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretura moldatzeko, zeinaren bidez hiri lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategina aldatzea onetsi baitzen. Testu hori irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Espedientea jendaurrean jarri da ALHAOn argitaratutako iragarkia dela medio (59. zenbakia, 2023ko maiatzaren 22koa), eta alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, osoko bilkurren erabaki hori behin betiko onetsita geratu da.

Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, 2 hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, Arabako toki ogasunak arautzen dituen, 18.1 artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena, 10.1 b) eta 46 artikulua). Gauzak horrela, osorik argitaratzen da indarrean jar dadin (Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 19.4 artikulua (1/2021 Araugintzako Foru Dekretua, irailaren 29koa)).

I. eranskinean jasotako koefiziente taula berria. Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantzaren koefizienteak.

| SORTZE ALDIA | KOEFIZIENTEA |
|-------------------------|--------------|
| Urtebete baino gutxiago | 0,15 |
| Urtebete | 0,15 |
| 2 urte | 0,14 |
| 3 urte | 0,15 |
| 4 urte | 0,17 |
| 5 urte | 0,18 |
| 6 urte | 0,19 |
| 7 urte | 0,18 |
| 8 urte | 0,15 |
| 9 urte | 0,12 |
| 10 urte | 0,10 |
| 11 urte | 0,09 |
| 12 urte | 0,09 |
| 13 urte | 0,09 |
| 14 urte | 0,09 |
| 15 urte | 0,10 |
| 16 urte | 0,13 |

| SORTZE ALDIA | KOEFIZIENTEA |
|---------------------|---------------------|
| 17 urte | 0,17 |
| 18 urte | 0,23 |
| 19 urte | 0,29 |
| 20 urte edo gehiago | 0,45 |

Iruña Oka, 2023ko uztailearen 11

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ